

PDF 5

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Webgune bat sortzea da gure ideia proiektua ezagutzera eramateko, honekin, bezero berriak sortzeko asmoz. Honez gain, harrera on bat eduki dezan gure proiektuak, inaugurazio bat egingo dugu abenduan, bertan gure kiroldegiaren abantailak azpimarratuz. Inauguraziora gerturatu ez direnentzat, hainbat liburuxka sortuko ditugu, bertan, kiroldegiari buruzko hainbat informazio eskainiko diegu irakurleei, baita gurekin harremanetan jartzeko zein aukera izango dituzten ere.

Kiroldegiari dagokionez, leku fisiko bat beharko dugu, horretarako lokal bat alokatu beharko dugu eta bertan kiroldegia muntatu. Jadanik, hainbat lokalen jaberekin harremanetan jarri gara, eta hainbat lokal ditugu gure aukeren artean. Orain, horien artean egokiena aukeratu beharko dugu, itxura eta errentagarritasunari dagokionez.